


donostian banengo



ANE INSAUSTI

I ehenbizi Ingalaterrara joan zen, 1992ko martxoaren 26ean. Urte bereko abuztuaren lehenean, baina, mailetak egin eta Eskoziako East Kilbride hirira joan zitzaigun lan bila. Ordundik, senarrarekin batera, han dugu Ane, elektronika industriagatik ezaguna den 70.000 biztanledun hiriko «Hairmyres Hospital»en sendagile lanetan. Eritetxekoa lan gogorra da oso, eta eguna ia han ematen du. Denbora tartetxoan, hala ere, kotxean sartu, kilometroak egin, eta badago ikusteko moduko leku ederrik. «Eskozia benetan polita da, baina oso, oso hotza. Iparraldean mendi eta laku asko daude eta paisaia oso atsegina da. Baina hau ez da Euskal Herria».

Donostia oroimenean du. «Hondartzak, Alde Zaharrak eta konparaziorik ez duen gure janariak sentiarazten dit herrimina gehien. Sendiaz eta lagunez ere asko gogoratzen naiz».

Mantxako Kanala zeharkatu eta oraintxe gure artean balego, hauxe lirateke Aneren berehalako planak: «Oraintxe bertan Kontxara joango nintzateke paseatzera, eta gero Alde Zaharrera pintxo batzuk eta sagardo pixka bat hartzera. Bai gustura joango nintzatekeela!»

Altzako trafikoa nola konpondu

Trafiko Sailak ikerketa bat eskatu du Altza eta Larratxoko zirkulazio arazoak aztertzeko. Ikerketa honen emaitzen arabera, sarrera, aparkaleku eta barne zirkulazioari irtenbideak jarriko zaizkio. Auzo hauek dira Donostian trafiko arazo handienak dituztenak.

La Salleren itxuraldaketa

Urte t'erdi inguru iraungo dute La Salle inguruan egiten ari diren lanak, bertan, polikiroldegia, etxebizitzak, aparkalekuak eta komertzioak jartzeko lokalak eraikiko dira.


Urtebetetzeak



Axular jaio zela urte askotxo pasa dira baina gure handik fisikoki gertuago dagoen beste Axular, Lizaso alegia, sortu zenetik 25 urte bete dira dagoeneko, eta hori ospatu nahian ekitaldi mordoa antolatu du **Martin Alijostesek** eta **Josebe Insaustik** koordinatu duten talde gogatsuak. Antolatu dituzten ekitaldien eredu orain egun gutxi ospatu zuten festa dugu. Aietear askotxo bilduta **Oskar Atorrasagastik** eginiko Axularren soina inauguratu zen eta idazlearen izena zeraman ipuin lehiaketaren sariak banatu ziren.

Beste urteurrena, tamalgarriagoa, halere, Sarajevoko bombardaketarena dugu. 3 urte pasa dira hiri honetako kale eta eraikuntzak deuseztuta ikusten hasi ginenetik eta arriskua ere badugu irudi latz hauek gure egunerokotasunean murgildu eta ohizkotzat jotzea. Horregatik interesgarriak dira, oso, S.O.S. BALCANESeko **Irene Cormenzana** eta beste kideak bultza-

SUKALDE



ALTZARIAK

sukaldeak galeriak



GIPUZKOA PLAZA, 4 • 42 35 65

TB.
BIDEOA
ELEKTRAGAILUAK

arbelaitz

HERNANI, 29 • TFNOA.: 29 16 09 / TXURRUKA, 4 • TFNOA.: 42 19 44 DONOSTIA